



Hegoko lautadaren ertzetik.
Balerdi Balerdi

Musikorta, 2012.
Iraupena: 37'10".
CDak 10 euro.

Plazer txiki bat

BALERDI BALERDI nire talde kutunetako bat da. 1990. urtean sortu zen, eta aire freskoa ekarri zuten Euskal Herriko musikaren mundura. Beren melodia politak, mod eta new wave aireak, rock-and-roll kutsuko doinuak, umorea, ironia, etorria, eta haien *feelinga* maite nituen, eta oso gustura entzuten ditut oraindik garai hartan kaleratu zituzten lanak: *Balerdi Balerdi* (1991) hamar hazbeteko binilozko diskoa, eta *Ez gara galdu* (1994) zein *Hobe bebin gorri ezenez beti hori* (1997) CDak.

Balerdi Balerdiren zaleok poztu ginen taldeko jatorrizko hiru kide –Toño Muro (ahotsa eta gitarra), Marino Goñi (baxua) eta Sergio Ibarrola Zara (bateria)– 2009an zuzeneko emanaldiak eginen hasi zirenean, Balerdi Erdi izenarekin. Hainbat saio eman ostean, Goñik taldea utzi zuen. Ondoren, Karlos Ortiz baxu-jotzailea taldean jotzen hasi zen.

Gehiago poztu ginen disko berri bat kaleratu behar zutela jakin genuenean, eta zer esanik ez, diskoa eskuratu eta entzuten hasi garenean. Balerdi Balerdiren esentzia, mamia sumatzen dugulako kantuetan: pop kutsuko giro politak, rock-and-rolla, bizitzeko gogoa, askatasunaren aldeko aldarria, kritika eta ironia, gatza eta piperra...

Balerdi Balerdiren betiko melodia ederrak (*Linboa*, *Egiozu kasu*, *Ez dut jakin nahi*), rock doinuak (*Gduka*, *Nor da beste aldean?*, *Iruñean rokanrolik ez*), giro leun eta hunkigarriak (*Bertan goxo*, *Hegoak (In Dylan imitatione)*) eta ska kutsuko erritmoak (*Ez kabapean*) entzuten ahal dira *Hegoko lautadaren ertzetik* diskoan.

Azken hiru urteetan sortu dituzten kantuak eta moldatu dituzten kantu zahar batzuk dira. “Ez genuen linboan gal zitezen nahi, eta, gainera, gure zale maitagarri eta eskas horiek merezi dute plazer txiki bat”, Zararen hitzetan. Zaleok estimatu eta eskertzen dugu plazer hori: Balerdi Balerdiren kantu berriak entzunez gozatzea.

Gitarra, baxua eta bateriaz osaturiko talde batenzat konposatutako kantuak dira, baina beste hainbat musika tresna ere erabili dituzte grabazio saioetan:



KATAKUOSTATUA.BLOGSPOT.COM.ES

harmonika, teklatuak eta perkusioak, besteak beste.

Batiz gitarra jotzaileak (Tapia eta Leturia Band, Fito y los Fitipaldis, Gatibu) hainbat solo egin ditu, eta Blanka Izkuek (Balerdi Balerdiko kide ohia) teklatuak jo ditu. Xabi Navarro *Jota* grabazioaz eta nahasketez arduratu da, eta Exprai izan da diseinua- ren eta marrazkien egilea.

Pello Lizarralde idazleak *Linboan* eta *Hegoak (In Dylan imitatione)* kantuen hitzak idatzi dizkie, eta Toño Muro izan da gainerako kantuen musiken eta hitzen egilea. Lizarralde berak lagundu dio Murori hitzak orrazten, eta kantuen moldaketak taldekideen artean egin dituzte.

Disko berria oso gustura entzuten dut, baina pena da ekoizpen hobea egin ez izana. Kantuak Balerdi Balerdirenak dira erabat, doinuak garbi entzuten dira, baina indar, kolore eta distira pixka bat gehiago faltan sumatzen dut.

Urteak pasatu dira, baina Balerdi Balerdik ez du *feelinga* galdu, taldekideek bihurri izaten jarraitzen dute, eta ederki pasatzen dutela nabari da beren kantuak entzunez gero. Guk ere bai, Balerdi Balerdiren kantu berri bat entzutea plazer txiki bat baita. ■

Joxi Ubeda

